

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Ismael Redondo
Usoa Urbietta
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

18/05 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko maiatzaren 24ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **espezializazio profesionaleko lau programa ezartzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa, zeinaren helburua baita lanbide-heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala ordenatzea, hala, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzun ahal izateko gizarte- eta ekonomia-eskariei, hainbat hezkuntza modalitateen bitartez. Horrez gain ezartzen du funts publikoekin sostengatutako prestakuntza eskaintzak bizitza osorako prestakuntza ahalbidetu behar duela, eta espektatiba eta egoera pertsonal eta profesional desberdinei egokitu behar zaiela.

Lan esparruan, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua ezartzen duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak dauka Estatuko legeria betearazteko eskumena, batez ere langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak -Lanbide Heziketako Hezkuntza Sistemaren antolamendu orokorra ezartzen duena eta otsailaren 2ko 14/2016 Dekretu bidez aldatu zena- Euskadiko lanbide espezializazioko programak ezartzen ditu Lanbide Heziketaren esparruan eta beren balioa aitortzen eta akreditatzen du indarrean dagoen araudi markoaren barruan.

2016ko uztailaren 27ko Aginduaren bidez espezializazio profesionaleko zazpi programa ezartzen dira, eta baita ere horiek baimentzeko eta irakasteko baldintza orokorrak.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek hiru artikulua eta bi azken xedapen ditu. Era berean, eranskinetan jasota daude espezializazio profesionaleko lau programen egiturak.

1. artikulua ezartzen du Dekretuaren xedea dela programen egitura ezartzea.

2. artikulua arauaren xede diren programen zerrenda ematen du: zibersegurtasuna ETEetan; metalezko materialen eta soldatutako loturen ikuskapena entsegu ez-suntsitzailen bitartez; produkzio integrala hodiak fabrikatzeko ildoetan; eta industria aeroespazialerako soldadura.

3. artikulua ezartzen du zeintzuk diren espezializazio horiek irakasteko baldintzak: otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 12ter artikuluan jasotakoak, bai eta uztailaren 27ko Aginduan ezarritakoak, zeinetan ezartzen baitira espezializazio profesionaleko zazpi programak eta horiek baimentzeko eta irakasteko baldintza orokorrak.

14/2016 Dekretuak aldatutako 32/2008 Dekretuaren behin betiko bertsioak, bere 12ter. artikuluko 7. atalean, hauxe dio: “(...) Euskadiko Lanbide Espezializazioko Programen inguruko prestakuntzak ez du titulu edo ziurtagiri akademikorik, ziurtagiri profesionalik edo ziurtagiri partzial metagarririk emango, eskumen horiek Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalean sartzen ez diren bitartean”

Lehen xedapen gehigarriak dio noiz sartuko den indarrean eta bigarrenak errekurtsioak aurkezteko aukera jasotzen du.

III. BALORAZIOAK

Kontseiluak 16/03 Irizpenean eman zuen espezializazio profesionaleko zazpi programa eta horiek baimentzeko eta irakasteko baldintza orokorrak ezartzen dituen proiektuari buruzko iritzia. Era berean, 15/04 Irizpenean eman zuen Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra arautzeko otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua aldatzen duen 14/2016 Dekretuari buruzko iritzia.

Dekretu proiektu honek aipatutako lau programen egitura onartzen du, baina ez du aldaketarik egiten horiek baimentzeko eta irakasteko baldintzetan.

Eranskinetako programetan 32/2008 Dekretuko egitura eta atal berdinak ageri dira.

Horregatik, Kontseiluak ez dauka eragozpenik programa horiek arautzeko, eta espero du beren helburua beteko dutela, hau da, pertsonen enplegagarritasuna hobetzea. Horregatik eskatzen du egin dadila emaitzen jarraipena eta ebaluazioa.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA